

TXIKITTO

2013ko otsaila 134



Aratoste GIRUA



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri eta
Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Txisteak

- Aizu, non igartzen diozu oiloari zaharra ala gaztea den?
- Ba, hortzetan.
- Hortzetan? Baina oiloek ez dute hortzik!
- Ez, ez, baina nik bai!

Malen Esparza

Festa batean emazteak errieta
egin dio senarrari:

- Laugarren aldiz hartu duzu tarta izozkiarekin. Ez zara lotsatzen, ala?
- Lotsatu? Zer dela eta? Zuretzat dela esaten diet beti.

Markel Arrieta

- Nola esaten da txineraz klimesa? Kitamokito.
- Eta komuneko papera? Kitakakita
- Eta ispilua? Ai-toi!

Herria tren-geltokitik hainbat
kilometrotara zegoen. Bidaiari
xuhur batek galdetu zion

taxilariari:

- Zenbat kobratzen duzu hemendik herrira?
- Hiru euro, jauna.
- Eta maleta eramateagatik?
- Ezertxo ere ez, jauna.
- A, ederki, ba orduan eramazu maleta, ni oinez joango naiz eta.

Maialen Fernandez

Bost urteko mutikoa asper-asper
eginda zegoen amak etengabe
behartzen zuelako eskuak eta
aurpegia garbitzera. Egun batean
lagun batekin topo egin eta esan
zion honek:

- Ene! Ikaragarri hazi zara Jontxu!
- Jakina! Amak etengabe ureztatzen nau-eta!

Abril eta Gisele





Joan den urtarrilaren 26an, zapatua, **ALDATZE** ikastetxean "Al-datze denok gara" saioa ospatu genuen. Zirrarak lantzeko hainbat tailer egin genituen (poza, beldurra eta harridura). Guraso, ume eta irakasleek parte hartu zuten eta goiz ederra pasatu genuen.



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeak atea zabaldu zituen otsailaren 2an eta nahi izan zuten guztiei gure eskola erakutsi eta gurekin goiza pasatzera gonbidatu genituen. Bertan, makillajea, karaokea, informatika, erroskilak, txokolatea, taloak, palomita eta jolasak, eta nola ez, giro aparta izan genuen.

Otsailaren 4an Santa Ageda koplak abesten ibili ginen auzoan zehar. Aratosteetan, berriz, Far West bihurtu ginen, bakeroak, indiarak...



Urtarrilean, **JUAN ANTONIO MOGEL** ikastolako 5. mailako ikasleek opari ederra jaso zuten: lau eguneko Euskal Barnetegiaren esperientzia ezinhobea. Gela bateko neska-mutilek Barriako barnetegian igaro dituzte egun horiek, beste gelakoek, berriz, Seguran. Bertan egoteko helburua egun osoan euskaraz bizitzea izan da. Horrela pila bat ekintza egin dituzte, denetan zerbait ikasiz era dibertigarrian. Pozik bueltatu dira hainbat egun lagun artean pasa dituztelako.




Urtarrilaren 28tik-otsailaren 1era bakearen astea ospatu dugu **LA SALLEN** eta maila bakoitzean hainbat lan egin ditugu. Ipuinak kontatu, usoak margotu, abestiak ikasi... eta ostiralean ospakizuna izan genuen!! Oso polita irten zitzaigun!! Bi uso eta guzti askatu genituen, usoaren marrazki handi bat, gurasoen laguntzarekin, irakase batzuen eskuekin eta ikasle batzuren eskuekin bete genuen. Zoragarri geratu zitzaigun! Ikasitako kanta abestu genituen eta momenturik koloretsuena.... globo piñila bat askatu genituenean izan zen!!! Zeru kolorez beteta utzi genuen!!!

6.mailakoak otsailaren 4tik 7ra Seguran izan dira!! Hotz pixkatxo bat pasatzen... 13an hausterre eguna ospatu genuen. 18an 4. 5. eta 6. mailakoak "Txoriburuak" pelikula ikustera joan ziren. Eta 26an arratsaldean, Enkarni Genua etorriko zaigu Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoei antzezlan bat aurkeztera.

DENBORAPASAK

Aidan.
Nora.
Eneko.
Lara.



Ordenatu koloreen letra eta margatu bi mozorroak. Asmatu zertaz doazen.

(Maite I, Nerea AL.
Anie. E.)



KOLOREAK

- 1: IDURAN →
-
- 2: RRIAGO →
-
- 3: RIHAO →
-
- 4: SARROA →
-
- 5: TZABEL →
-
- 6: IGARAH AERDOK →
-
- 7: LARRAZ →
-
- 8: DEBERA →
-

Animaliak

K	A	M	R	A	I	M	R	A	H
O	S	U	G	E	A	W	A	O	L
S	L	K	R	Z	O	L	E	R	K
V	S	A	I	T	K	H	S	R	L
L	L	O	G	R	N	W	E	A	Z
P	X	D	S	A	I	R	Q	M	U
A	Z	O	L	H	R	H	W	A	W
O	I	J	M	A	R	R	O	B	X
Z	W	B	K	R	O	M	O	R	H
A	P	Z	S	J	I	T	I	M	A
R	Z	E	U	A	I	R	Y	K	R
R	Y	G	O	Z	N	R	N	W	T
A	M	U	P	O	R	O	X	D	Z
M	G	S	H	I	O	W	Q	H	A


- Ornitorrinkoa
- Olagarrea
- Karramarra
- Armiarma
- Sugea
- Hartza
- Marrazoa
- Ruma

Juane, Nerea, Itziar, Ane.

A	D	L	E	K	I	M	B	Z	S	R	J	G
Q	A	R	R	X	A	M	I	A	C	S	I	K
O	S	A	I	N	I	E	S	T	A	O	M	R
I	E	N	S	L	R	S	L	R	P	S	U	T
V	X	O	T	R	M	S	N	A	X	N	O	O
A	R	R	A	L	L	I	G	S	V	O	R	R
X	N	S	T	O	N	T	K	A	S	L	T	R
K	T	L	O	N	S	O	Z	P	K	A	I	E
I	K	F	L	C	E	X	P	A	M	F	K	S

- Messi
- Alonso
- Xavi
- Illarra
- Errasti
- Iniesta
- Mikel
- Torres
- Silva

Topatu ezazu futbolari hauek izenak.
Mikel, Xabi eta Ander.



Eskola-jazarpena edo bullying-a

Gure seme-alabak babestu ditzazkegu tratu txarren emaila edo jasotzaile izan ez daitezen? Jakina baietz. Eskola-jazarpena ekiditeko badira familia, hezitzaile eta gizartearentzat lagungarriak diren hainbat jarraibide.

Eskola-jazarpena eta familia

Familia ezinbestekoa da umeen sozializaziorako, eta balioak, arauak edo portaerak transmititu behar dizkie. Familiak ezarri behar du zer den onartezina eta zer onargarria, etxean eta gizarteko harremanetan. Adituen esanetan, besteak beste arau-ezak, eskolaz kanpo umeen portaeraren gainbegiratze eta kontrol ezak, diziplina zorrotzegiak, komunikazio faltak edo familia giroko borrokek portaera agresiboak eragin ditzakete umeengan.

Gure seme-alabak bullying-etik aldentzeko hona hemen oinarritzko arau batzuk:

- 1.- Seme-alabekin hitz egin. Monologorik ez, seme-alabei entzuten hobeto ezagutuko ditugu.
- 2.- Ager daitezkeen sintomen aurrean erne egon: urduritasuna, goserik ez, insomnia, eskola-errendimendua jaitsi...
- 3- Seme-alaben portaerak zaindu, zer egiten duten, nora doazen, zeinekin jolasten duten eta zein interes edo proiektu dituzten.
- 4- Muga eta arauak zehaztu, eta oinarritzkoenak betearazi.
- 5- Umeen portaera, gogo-aldartea eta ohitura aldaketez ohartu.
6. Besteekin ondo portatzen eta bizikide izaten erakutsi.

Eskolaren papera jazarpenean

Eskoletako diziplina ezinbestekoa da portaera onak eraikitzeko. Umeak ondo zaindu eta begiratu behar ditugu, ikasgelan eta patioan ez ezik, baita jangelan ere. Irakasle zein zaintzaileek beti egon behar dute adi. Ez itxi begiak errealitateari. Arauak ezarri behar dira bullying-a ekiditeko, gaiari buruz hitz egin behar da, ikastaro, hitzaldi edo tutoretza bitartez, eta eskola-jazarpena dagoen susmoa azaltzen denean, azkar, zuzen eta zorrotz jardun. Azken finean, bullying-ari aurre egitea guztion ardura da, eta alde bakoitzak bere papera bete behar du.



**Aratoste
irrifarrak!**















REINALDO AZERIA ETA ARRAIN SALTZAILEAK

Negu gorrian, Reinaldo azeria goseak amorratzen zegoen batean, arrain saltzaileak igaro ziren bere ingurutik. Gurdi bete arrain zeramaten. Reinaldori adurra zerion hortz-bitarteetatik arrain pilo hura ikusita.



Idea bat otu zitzaion bat-batean: bidearen erdian etzan eta hil itxura egitea.

Arrain saltzaileek ikusi zutenean, hilda zegoela pentsatu zuten: "Larru ederra dauka! Erraz salduko dugu...eup!", eta gurdira bota zuten

Reinaldo, arrain artean, Pepe baino pozago. Hark egin zuen betekada! Baina han arrain asko zegoen, seme-alabak ere asetseko adina. Arrain pilo bat soka batez lotu eta gurditik jaitsi zen. Arrain saltzaileek ez ziren ezertaz ohartu. Urruti zeudenean, Reinaldo oihuka hasi zitzaien:

"Agur! Arrain mordoa jan dut zuen pentzura. Ez ni gaiztoa naizelako, baizik eta zuek tonto hutsak zaretelako!"

Arrain saltzaileak azeriaren atzetik abiatu ziren. Harrapatu izan balute jota akabatu egingo zuten. Amorratuta zeuden. Baina azeri "azkarrak" atzean utzi zituen berehala eta egun hartan azeriaren familiak bapo jan zuen.

Arrain errearen usainak erakarrita otsoa agertu zen azeriaren etxean. Azeriak arrainak nola loritu zituen kontatu zion eta otsoak, burua berotuta, gauza bera egitea erabaki zuen.

Biharamunean otsoa bide erdian etzan zen arrain saltzaileen zain. Saltzaileak agertu zirenean otsoa ikusi, gurdia gelditu eta... Zer uste duzue gertatu zela?

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

Otsoak ziria sartu ziela? Bai zera! Berehala igarri zuten otsoaren asmoa eta ... hark hartu zituen makilakadak...

"Ai! Reinaldo madarikatua! Ai! Ai! Harrapatzen bahaut... Ni ere lelo galanta: hori mingarriena... Ai!"

MARI

Euskal mitologiako jeinu garrantzitsuena da, beste jeinu guztien buruzagia. Izen ugari hartzen ditu, agertzen den lekuaren arabera: Txindokiko Mari, Anbotoko Mari... Gezurra, lapurreta, errespetu falta eta harrokeria gorrotu ditu; aldiz, besteenganako laguntasuna saritzen du. Naturaren erregina da, eta, Mari hurbil denean, ekaitza etortzen da. Goiz batean, Kattalin izeneko neska gazte bat mendira joan zen artaldearekin, eta artaldea biltzen hasi zenean, ardi bat falta zitzaiola konturatu zen. Artaldearen jabeak egingo zionaren beldur, mendian gora abiatu zen ardiraren bila. Entzuna zuen Mari Anboton zegoenean ez gerturatzeko inguru haietara, baina ardi galdua topatu beharra zeukan. Ardia haitzulo baten sarteran aurkitu zuen, eta bere ondoan andre eder bat ikusi zuen. Mari zen. Marik nor zen galdetu zion eta neskatxak erantzun Kattalin zela bere izena, ez zuela familiarik eta ardi haiek herriko jaun batenak zirela. Orduan, Marik berarekin bizitzen gelditzeko esan zion, eta zazpi urte berari laguntzen egoten bazen, aberatsa egingo zuela agindu zion. Horrela, bada, Kattalin Marizuloko damari laguntzen gelditu zen eta zazpi urte horietan gauza asko ikasi zuen neskatxak. Garaia iritsi zenean, baina, honela esan zion Marik:

“ Kattalin, ondo bete duzu zure hitza, zintzo lagundu didazu. Nik joan egin behar dut, eta aberatsa egingo zintudala agindu nizunez, tori!”


Marik ikatz zati handi bat eman zion. Harrituta gelditu zen neskatxa, baina ez zen ausartu ezer esaten. Haitzulotik atera zenean, urte distiratsu bihurtu zen ikatza. Pozaren pozez jaitsi zen herrira,

etxea eta artaldea erosi eta zoriontsu bizi izan zen gure Kattalin.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...



MAR*i*



zu margolari!